

EMARI EKOLOGIKOEN ERREGIMENA EZARTZEKO HITZARTZE PROZESUA

**Kontsulta publikoaren eta parte-hartze aktiboaren
eranskina**

LEA UNITATE HIDROLOGIKOA

**Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa
- EAEko Barne Arroen Eremua -**

2018KO APIRILA

Agencia Vasca del Agua / Uraren Euskal Agentzia



Aurkibidea

1.	SARRERA	1
2.	HITZARTZE PROZESUA.....	2
2.1	Hitzartze Prozesuaren deskribapen orokorra	2
2.2	Hitzartze Prozesuaren faseak	2
3.	KONTSULTA PUBLIKO ETA PARTE-HARTZE AKTIBOKO PROZESUEN EGITURA OROKORRA ...	4
4.	BURUTUTAKO EKINTZAK	5
4.1	Kontsulta publikoa.....	5
4.2	Parte-hartze aktiboa.....	6
5.	KONTSULTA PUBLIKOAN ETA PARTE-HARTZE AKTIBOAN ESKURATUTAKO EMAITZAK	7
5.1	Kontsulta publikoa (A eta B taldeak).....	7
5.2	Parte-hartze aktiboa (B taldea)	7
6.	KONTSULTA PUBLIKO ETA PARTE-HARTZE AKTIBOKO FASEEK HITZARMEN PROZESUAN ERAGINDAKO ALDAKETAK	8
6.1	Kontsulta publikoa.....	8
6.2	Parte-hartze aktiboa.....	8
7.	ONDORIOAK	9
I.	ERANSKINA. KONTSULTA PUBLIKOA.....	I

Taulen aurkibidea

1. taula. Lea UHn kontsulta publikorako ezarritako aldia 5
2. taula. Lea UHko ingurumen-arloko organo eskuduna 5
3. taula. Lea Unitate Hidrologikoan Hitzartze Prozesua (A taldea) amaitzeko Ebazpena 6

Irudien aurkibidea

1. irudia. EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuan eman beharreko urratsak 3
2. irudia. Hitzartze Prozesuko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko mailak 4

Akronimoak

Sigla	Deskribapena
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
KKH	Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
EBA	EAEko Barne Arroak
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DH	Demarkazio Hidrografikoa
PHJ	Plangintza Hidrologikorako Jarraibideak
PH	Plan Hidrologikoa
KEDPH	Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa
EEE	Emari Ekologikoen Erregimena
400/2013 ED	Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duena
PHE	Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua
UH	Unitate Hidrologikoa
URA	Uraren Euskal Agentzia

1. Sarrera

Dokumentu honen xedea, emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren barnean, Lea Unitate Hidrologikoan (UH) egin diren **kontsulta publikoko eta parte-hartze aktiboko** prozesuak deskribatzea da.

Hitzartze Prozesua **Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa** (aurrerantzean KEDPH) **onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekrertuaren 15. artikuluan, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan (PHE) eta Plangintza Hidrologikorako Jarraibidetan (PHJ)** ezarritakoaren arabera garatu da.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa (DH), demarkazio hidrografikoen lurralde-eremuak mugatzen dituen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuko – 29/2011 Errege Dekretuak aldatutakoa – 3.2 artikuluan dago zehaztuta. Eremu honetan, alde batetik, **Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroak (EBA)** sartzen dira. Bertako eskumena, uraren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Uraren Euskal Agentziaren (URA) bitartez. Bestetik, erkidego arteko arroak daude eta hauen eskumena Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren (KKH) bitartez.

Dokumentu honen egitura zazpi kapitulu eta eranskin batean banatuta dago. Sarrerako kapitulu honen ondoren, **bigarren eta hirugarren kapituluetan** EAEko Barne Arroetan garatutako Hitzartze Prozesuaren deskribapena laburtzen da.

Ondoren, **laugarren, bosgarren eta seigarren kapituluetan**, Lea Unitate Hidrologikoan garatutako kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuak eta lortutako emaitzak zehazten dira. Azkenik, **zazpigarren kapituluan**, aipatutako UHren kasuan, prozesu hauen ondorioak laburtzen dira. I. Eranskinean prozesu hauen emaitzazko dokumentazio guztia atxikitu da.

2. Hitzartze Prozesua

2.1 Hitzartze Prozesuaren deskribapen orokorra

Hitzartze Prozesua EAEko Barne Arroen Eremu guztira hedatu da, unitate hidrologiko bakoitza banaka landuz. Era berean, ustiapen-sistemen bitartez beren artean nolabaiteko konexioren bat duten unitateen arteko interakzioak ere aztertu dira.

EAEko Barne Arroen Eremuan 12 unitate hidrologiko existitzen dira. Alde batetik, Oka, Urola, Oiartzun, Lea, Artibai, Butroe, Barbadun eta Deba, Euskal Autonomia Erkidego barruan kokatzen direnak osorik, eta, bestetik, Urumea, Oria, Ibaizabal eta Bidasoa, autonomia erkidego mugakideren batera hedatzen direnak.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren, hau da, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, **Hitzartze Prozesu** honen helburua, **indarrean dauden aprobetxamenduetan emari ekologikoak ezartzea izan da.**

Emari ekologikoen erregimena (EEE) ezartzeko, PHJko 3.4. atalean zehaztutako faseak jarraitu dira. Erabilitako metodologiaren deskribapena eta horretarako eginiko azterlanak URAREN web orrian (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/>) publikoaren eskura jarritako "[Dibulgazio-dokumentua](#)" delakoan kontsulta daitezke.

Hitzartze Prozesua 2013ko ekainaren 9an indarrean zeuden, beren klausulen barruan, berariaz, Planean ezarritako emari ekologikoen erregimena (EEE) betetzeko aurreikuspenik ez zuten eta, a priori, eskura zegoen informazioarekin, eskubidea iraungitzeko, berritzeko edo oinarritzko ezaugarriak aldatzeko espedienterik ireki behar ez zitzaizkien emakideen titularrekin egin da.

Prozesu honek orain existitzen diren erabilerak, eskaerak, berorien emakida-erregimena eta jardunbide egokiak hartu ditu aintzat. Lehenik eta behin, **parte-hartze publikoko** prozesu bat garatu da, informazio eta kontsulta publikoa sustatuz. Ondoren, eta Administrazio Hidrauliko honen erabakiz, EEE errespetatzeak uraren erabileraren mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen ur-aprobetxamenduen kasuan, **parte-hartze aktiboko** prozesu bat burutu da.

2.2 Hitzartze Prozesuaren faseak

EAEko Barne Arroen Eremuan indarrean dauden aprobetxamenduetan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua 1. irudian agertzen diren faseak jarraituz burutu da.

Fase horietan eginiko azterlan eta azterketa guztiak xehetasunez ezagutzeko URAREN web orrian (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/>) publikoaren eskura jarritako "[Dibulgazio-dokumentua](#)" kontsulta daiteke.

1. URRATSA URAREN ESKUBIDEEN EMAKIDEI BURUZKO INFORMAZIOA KONTSULTATZEA ETA HAUTATZEA	<ul style="list-style-type: none"> • INDIARRAN DAUDEN APROBETXAMENDUAK IDENTIFIKATZEA • HITZARTU BEHARREKO APROBETXAMENDUAK HAUTATZEA • APROBETXAMENDUAK TALDEKATZEA UNITATE HIDROLOGIKOEN ARABERA
2. URRATSA APROBETXAMENDUEN EZAUGARRIAK ETA PLAN HIDROLOGIKOAREN INFORMAZIOA AZTERTZEA	<ul style="list-style-type: none"> • EREMU BABESTUEN ERREGISTROAREN AZTERKETA ETA PLAN HIDROLOGIKOKO BALIABIDE ETA ESKAEREN ARTEKO BALANTZEA • ESKUBIDEAREN TITULUEN DATU ADMINISTRATIBO ETA JURIDIKOEN AZTERKETA (EEEen BURUZKO KLAUSULEN BERRIKUSPENA) • PLAN HIDROLOGIKOAREN INFORMAZIOA GEHITZEA (UR MASA, HARGUNEAK ZER TARTETAN KOKATZEN DIREN, EREMU BABESTUAK)
3. URRATSA EEEren HIDROLOGIA- ETA INGURUMEN- OSOTASUNAREN AZTERKETA ETA EZARKETAREN ERAGIN TEKNIKOA, EKONOMIKOA ETA SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> • BALIABIDE/ESKAERA SIMULAZIO EREDUEN AZTERKETA • EEEren HIDROLOGIA ETA INGURUMEN OSOTASUNAREN AZTERKETA ETA EEE EZARTZEAREN BALIZKO ERAGINENA • APROBETXAMENDUEN SAILKAPENA (A TALDEA ETA B TALDEA) HAUTATZE IRIZPIDEAK APLIKATZEAREN BITARTEZ
4. URRATSA INFORMAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • HITZARTZE PROZESUAREN INFORMAZIOA INTERESDUNEN ESKURA JARTZEA HAINBAT BITARTEKO ERABILITA: WEBGUNEA, POSTA OFIZIALA, URA-REN BULEGOAK, ...
5. URRATSA KONTSULTA PUBLIKOA	<ul style="list-style-type: none"> • KONTSULTA PUBLIKOA IREKITZEAREN ARGITALPENA UNITATE HIDROLOGIKO BAKOITZEAN • HILABETEKO KONTSULTA PUBLIKOA • ALEGAZIOAK JASOTZEA
6. URRATSA ALEGAZIOAK AZTERTZEA ETA BEHIN BETIKO PROPOSAMENA A TALDERAKO	<ul style="list-style-type: none"> • ALEGAZIOEN AZTERKETA (A TALDEA ETA B TALDEA) • BEHIN BETIKO PROPOSAMENA PRESTATZEA A TALDERAKO
7. URRATSA PARTE-HARTZE AKTIBOA (B TALDEA)	<ul style="list-style-type: none"> • APROBETXAMENDUEN TITULARREKIN BILERAK • ETA, KASUA HALA DENEAN, PROTOKOLOAK SINATZEA
8. URRATSA ALEGAZIOAK ETA ANALISIAK; BEHIN BETIKO PROPOSAMENA B TALDERAKO	<ul style="list-style-type: none"> • ALEGAZIO BERRIAK AURKEZTEA (BILERAK AMAITU ETA HILABETEZ) ETA AZTERTZEA • BEHIN BETIKO PROPOSAMENA PRESTATZEA B TALDERAKO


1. irudia. EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuan eman beharreko urratsak

Jarraian, EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuaren barruan burututako kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuak sakontasun osoz deskribatzen dira.

3. Kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuen egitura orokorra

Arestian nabarmendu den bezala, emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren harira egindako azterlan guztiekin derrigorrezkoa zen parte-hartze publikoko prozesu bat burutu da, informazio eta kontsulta publikoa sustatuz (ikusi 2. irudia).

Era berean, B taldeko aprobetxamenduen kasuan, parte-hartze aktiboko prozesu bat ere garatu da, emari ekologikoen eta ur-erabileren arteko bateragarritasuna lortzeko bidean adostasun gehiago erdiesten lagundu duena. B taldeko aprobetxamendu horien kasuan, a priori, emari ekologikoen erregimena errespetatzeak, uraren erabileraren mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen.



2. irudia. Hitzartze Prozesuko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko mailak

Parte-hartze aktiboaren maila honetan, B taldeko aprobetxamenduen titularrekin zenbait bilera egin dira, eta beroien xedea, ahal den neurrian, emari ekologikoen erregimenaren ezarketari buruzko akordio desberdinetara iristea izan da (emakidetako emarien malgutasuna, ezarketa planaren barruan gauzatu beharreko jarduerak, obrak egiteko gehieneko epeak, eta abar). Horretarako, hainbat proposamen aztertu dira, betiere kontuan izanik, ez bakarrik emakida-erregimena, baizik eta aprobetxamenduen gaur egungo ur-erabilerak eta eskaerak, eta bereziki, jardunbide egokiak.

Jarraitutako azken helburua, plangintza hidrologikoan zehaztutako emari ekologikoen erregimena ezartzea izan da, ahalik eta adostasun handienarekin.

4. Burututako ekintzak

4.1 Kontsulta publikoa

Gaur egungo erabilerei buruzko informazioa behin identifikatu, hautatu eta aztertu ondoren, eta aprobetxamenduak A eta B taldeetan sailkatu ostean, parte-hartze publikoari eman zitzaion hasiera, beroren lehen maila, hau da, **informazio maila** abian jarri.

Honela, URaren web orriaren bitartez (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/>), ondorengo informazioa publikoaren eskura jarri zen:

- Dibulgazio-dokumentua, EAEko Barne Arroen Eremuan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuari buruzko informazioa jasotzen zuena.
- Unitate hidrologiko bakoitzean burutu beharreko Hitzartze Prozesuaren ezaugarriei buruzko berariazko informazioa jasotzen zuen dokumentua, eranskin banatan, Hitzartze Prozesuaren barne zeuden aprobetxamenduak jasotzen zituen (A eta B taldeak).
- Azterlan-eremuan Hitzartze Prozesuaren barruan indarrean zeuden aprobetxamenduen emakida-informazioa.
- Azterlan-eremuko emari ekologikoen erregimenen mapak, ibai-tarte eta ur-masaren arabera.
- Hainbat motatako informazioen kontsulta espaziala ahalbidetzen zuen GIS ikusgailua, zehatzago esanda, PHren Araudian aurreikusitako interpolazio prozeduraren bitartez (400/2013 ED, 13.4. art.) ur-masa bateko puntu batean emari ekologikoen erregimena zehaztea ahalbidetzen zuena.

Web orriaren eta URAK erabiltzen dituen beste hainbat bitarteko elektronikoren bitartez (twitter, Irekia, posta elektronikoa) unean uneko informazioa argitaratu zen emari ekologikoak ezartzeko Hitzartze Prozesuaren garapenari buruz.

Lea Unitate Hidrologikoaren kasuan, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko urriaren 26ko Ebazpenaren bitartez (BAOn, azterketaren xede den UHn sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URaren web orrian argitaratutakoa), hilabeteko epea ireki zen interesdunek unitate hidrologiko honetarako zehaztutako Hitzartze Prozesuaren inguruan egoki irizten zituzten alegazioak edo iradokizunak aurkeztu zitzaizten. 1. taulan dokumentu honen xede den eremuan **kontsulta publiko**rako ezarritako aldia erakusten da.

Unitate Hidrologikoa	Kontsulta publikoa irekitzeko Ebazpenaren data	Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren esteka
Lea	2015/10/26	BAO. 218. zk., 2015/11/12

1. taula. Lea UHn kontsulta publikorako ezarritako aldia

Gainera, Hitzartze Prozesuaren barruan zeuden Lea UHko hainbat aprobetxamendu Natura 2000 Sarearen edo Espezie Mehatxatuen Interes Berezikotako Eremuen barruan kokatzen direnez, 2. taulan ageri den bezala, ingurumen-arloko organo eskudunari, kontsulta publikoko prozesuari zegokion informazio guztia helarazi zitzaion.

Unitate Hidrologikoa	Informazioa helarazitako data	Arloko organo eskuduna
Lea	2015/11/13	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (BFA)

2. taula. Lea UHko ingurumen-arloko organo eskuduna

Behin kontsulta publikoa amaituta eta herritarren iritzia kontuan hartzeko asmoz, jasotako alegazioak/iradokizunak aztertu behar ziren. Hala eta guztiz ere, Lea UHri eragin ziezaiokeen iradokizunik jaso ez zenez, ez zen aldaketarik egin UH honetako A taldeko aprobetxamenduetan emari ekologikoak ezartzeko zehaztutako Hitzartze Prozesuan.

Azkenik, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko abenduaren 29ko Ebazpenaren bitartez, Lea Unitate Hidrologikoko dokumentua onetsi zen, bertako A taldeko aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat emanez. Aipatutako Ebazpena BAO, azterketaren xede den UHn sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratu zen.

Unitate Hidrologikoa	Behin betiko Ebazpenaren data	Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren esteka
Lea	2015/12/29	BAO. 21. zk., 2016/02/02

3. taula. Lea Unitate Hidrologikoan Hitzartze Prozesua (A taldea) amaitzeko Ebazpena

Amaitzeko, A taldeko aprobetxamenduen titularrei bete beharreko emari ekologikoen erregimenak jakinarazi zitzaizkien.

4.2 Parte-hartze aktiboa

B taldeko ur-aprobetxamenduen kasuan, a priori, emari ekologikoen erregimena errespetatzeak, uraren erabileraren mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen; hori dela eta ur-aprobetxamendu horiek ziren ingurumen-helburuak betetzeko garaian eragin handiena izan zezaketeenak Horregatik, emakida hauen titularrekin **parte-hartze** aktiboko prozesu bat garatu zen.

Lea Unitate Hidrologikoaren kasuan aprobetxamendu guztiak A taldean sartu zirenez, ez zen beharrezkoa izan parte-hartze aktiboko prozesu hau burutzea.

5. Kontsulta publikoan eta parte-hartze aktiboan eskuratutako emaitzak

5.1 Kontsulta publikoa (A eta B taldeak)

Arestian nabarmendu den bezala, informazio eta kontsulta publikoko aldiak amaitzean, EAEko Barne Arroen Eremuan garatutako emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua zela eta hainbat idatzi jaso ziren Uraren Euskal Agentzian; halere, horietako batek ere ez zuen Lea UHn eraginik.

5.2 Parte-hartze aktiboa (B taldea)

Lea UHn ez da B taldeko aprobetxamendurik existitzen; beraz, ez zen parte-hartze aktiboko prozesurik burutu.

6. Kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko faseek Hitzarmen Prozesuan eragindako aldaketak

6.1 Kontsulta publikoa

Kontsulta publikoko prozesuan Lea UHri eragin ziezaiokeen iradokizunik jaso ez zenez, ez zen aldaketarik egin bertako emari ekologikoak ezartzeko Hitzartze Prozesuaren inguruan eginiko dokumentuan.

6.2 Parte-hartze aktiboa

Lea Unitate Hidrologikoko aprobetxamendu guztiak A taldean sartu zirenez, ez zen beharrezkoa izan parte-hartze aktiboko prozesu hau garatzea.

7. Ondorioak

Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuan garatutako kontsulta publikoko eta parte-hartze aktiboko faseak amaituta, **Lea Unitate Hidrologikoko** ur-aprobetxamendu guztiak A taldearen barruan kokatzen direla **ondorioztatu** daiteke; horregatik, ez zen beharrezkoa izan parte-hartze publikoko prozesua garatzea.

Kontsulta publikoko fasea hau amaitu ondoren, Lea UHn eragina izan zezakeen alegazio edo iradokizunik jaso ez zenez, **Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko abenduaren 29ko Ebazpenaren** bitartez, unitate hidrologiko honetako dokumentua onetsi zen, bertako A taldeko ur-aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat emanez. Aipatutako Ebazpena 2016ko otsailaren 2an Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 21. zenbakian, xede den eremuan sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratu zen.

I. Eranskina. Kotsulta publikoa

IA Eranskinak Hitzartze Prozesuaren harira garatutako informazio eta kotsulta publikoko prozesuaren irekieraren inguruan, Lea Unitate Hidrologikoko ingurumen-arloko organo eskudunari bidalitako jakinarazpena jasotzen du.

LEA UNITATE HIDROLOGIKOA

IA ERANSKINA

HITZARTZE PROZESUKO INFORMAZIO ETA KONTSULTA- PUBLIKOAREN IREKIERAREN JAKINARAZPENA INGURUMEN- ARLOKO ORGANO ESKUDUNARI

I. zk.	Unitate Hidrologikoa	LEA
	Ingurumen-arloko organo eskuduna	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (BFA)
	Informazioa helarazitako data	2015/11/13

Maria Uribe Guerendarain
Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia
Bizkaiko Foru Aldundia
Alameda Rekalde 30
48009 Bilbao (Bizkaia)

GAIA: Jakinaraztea “Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze prozesua – Lea Unitate Hidrologikoa” delako dokumentuari dagokion informazio eta kontsulta publikoaren prozedurari hasiera eman zaiola; Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren EAeko Barne Arroen eremuari dagokion hitzartze prozesuarekin lotuta.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15. artikulua araber, indarrean dauden emakidetan emari ekologikoen erregimena ezartze aldera, Hitzartze prozesu bati ekingo zaio, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 18.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

EAeko Barne Arroen eremuan, Uraren Euskal Agentziari emandako eskumenen esparruan, Hitzartze prozesu hori abian jarri da eta, Plangintza Hidrografikoaren Jarraibidearen 3.4.6. paragrafoari jarraituz, informazioaren eta kontsulta-publikoaren urratsak jaso beharko ditu gutxienez delako prozesu horrek.

Lehenengo urratsari, informazioari alegia, dagokionez, eta emari ekologikoen erregimena ezartzerakoan ahalik eta zabalkunderik handiena lortzearen, Uraren Euskal Agentziak jendearentzat eskuragarri jarri du bere web- orrian Hitzartze prozesuari buruzko informazioa. Bertan

ASUNTO: Comunicación de la apertura del procedimiento de información y consulta pública del documento “Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos - Unidad Hidrológica Lea”, relacionado con el proceso de concertación correspondiente a la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco.

De acuerdo con el art. 15 del Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, para la implantación del régimen de caudales ecológicos a las concesiones en vigor se desarrollará un Proceso de Concertación según lo dispuesto en el artículo 18.3 del Reglamento de Planificación Hidrológica.

En el marco de las competencias atribuidas a la Agencia Vasca del Agua se ha iniciado, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco, dicho Proceso de Concertación, el cual, de conformidad con el apartado 3.4.6 de la Instrucción de Planificación Hidrológica, deberá abarcar, al menos, los niveles de información y consulta pública.

Respecto al primer nivel, el de información, y con el objeto de conseguir la máxima difusión en la implantación del régimen de los caudales ecológicos, esta Agencia Vasca del Agua ha puesto a disposición del público en su página web la información relativa al Proceso de Concertación incluyendo las



bildu dira prozesua arautzen duten arau nagusiak, azterketa eta dokumentu teknikoak, bai eta "Dibulgazio dokumentua" deritzona ere, prozesua errazago ulertzen laguntzeko xedez.

Bigarren urratsari, kontsulta publikoari alegia, dagokionez, Uraren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2015eko urriaren 26ko Ebazpenaren bitartez, hasiera eman zaio Lea Unitate Hidrologikoan kokatuta eta Hitzartze prozesupean dauden ur-aprobetxamenduen kontsulta-publikorako aldiari.

Honen bitartez, kontsultarako aldiari hasiera eman zaiola jakinarazi nahi dizugu. (jendaurrean kontsultagai jartzeko aldiari) Horrenbestez, gorago aipaturiko 2015eko urriaren 26ko Ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hilabete batez dokumentazio hori guztia kontsultagai izango da Uraren Euskal Agentziaren ondorengo egoitzetan:

- Egoitza Nagusia. Orio kalea 1-3
01010 Vitoria-Gasteiz

- Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa.
Uribitarte kalea 10
48001 Bilbao

Horrez gain, aipatutako dokumentazioa eskuragarri izango da Uraren Euskal Agentziaren orrialde elektronikoan

principales normas que lo regulan, estudios y documentos técnicos, así como el denominado "Documento Divulgativo" cuya finalidad no es otra que facilitar su comprensión.

Respecto al segundo nivel, mediante Resolución de 26 de octubre de 2015 del Director General de la Agencia Vasca del Agua, se ha iniciado un periodo de consulta pública en relación con los aprovechamientos de agua existentes sometidos al Proceso de Concertación ubicados en la Unidad Hidrológica Lea.

Por medio de la presente, se le comunica la apertura del mencionado periodo de consulta. A tal efecto, la documentación se podrá consultar desde el día siguiente a la publicación de la citada Resolución de 26 de octubre de 2015, y por el periodo de un mes, en las siguientes sedes de la Agencia Vasca del Agua:


- Sede Central C/ Orio 1-3
01010 Vitoria-Gasteiz.


- Oficina de las Cuencas Cantábricas Occidentales. C/ Uribitarte, 10
48001 Bilbao

Además, dicha documentación estará a disposición pública en la página web de la Agencia Vasca del Agua.

www.uragentzia.euskadi.eus

Vitoria- Gasteiz, 2015eko azaroaren 12an




Iñigo Ansola Kareaga
Zuzendari nagusia/ Director General